# Ardo- eta zereal-lurra, JEL gotorlekua

*Oionen euskal abertzaletasunak izandako historiari hurbilketa*
*(1931-1936)*



# Tierra de vino y de cereal, baluarte de JEL

*Aproximación a la historia del nacionalismo vasco en Oyón*
*(1931-1936)*

Manuel González Pastor
Román Berriozabal Azpitarte

eaj
pnv

# OIONGO BATZOKIA

## Aurkezpena

Laster batean, presidente nauen Araba Buru Batzar honek hiru urte beteko ditu. Niretzat ohore handia da arabar jeltzaleen presidente izatea.

ABBa eratu berritan, zera esan genien luze-zabal alderdikide guztiei: beste zenbait helbururen artean, berariaz ekingo geniola alderdikideei zuzenduriko prestakuntza eta informazioari. Geroztik, hori egite aldera, hainbat ekimen jarri dugun abian: *Arabarra* agerkari digitala; *Gure-gureak* eta *Ikusgai* izeneko egitasmoak; gaikako erakusketak (Mendigoxaliak, Emakume Abertzale Batza, Aberri Eguna 1934, Francisco Javier Landaburu…); eta berariazko zenbait argitalpen.

Esku artean duzun argitalpenak berariazko horien artean du bere tokia. Aurretiaz, hiru liburuxka argitaratu dira: José María Gerenabarrenaren biografia, bere eriotzaren hamargarren urteurrenaren kariaz; Asparrenako Batzokia eta Emakume Abertzale Batza, bietatik lehena duela 80 urte ireki zela eta. Hirugarrena zera izan zen: Lázaro Gancedo Salmantónen biografia (1900-2001).

Aipaturiko argitalpen horien bidez, gu baino lehen izan diren pertsonen eta orain baino lehen izan diren jazoeren ezagutza sakondu nahi da eta, edozelan ere, gu baino lehen aberrigintzan ibili eta Euzkadiri bere onena eman zioten guztiei bihotz-bihotzetiko omenaldia egin nahi zaie.

## Presentación

Va para tres años la constitución del Araba Buru Batzar (ABB) o Consejo Territorial de EAJ-PNV en Álava que tengo el honor de presidir.

Entonces, tal y como anunciamos al conjunto de la afiliación alavesa, nos marcamos entre otros objetivos la profundización en la formación y en la información a la afiliación alavesa. A tal fin venimos desplegando ininterrumpidamente numerosos iniciativas: revista digital *Arabarra*, los proyectos *Gure-gureak* e *Ikusgai;* exposiciones temáticas (Mendigoxaliak, Emakume Abertzale Batza, Aberri Eguna 1934, Francisco Javier Landaburu…) así como determinadas publicaciones específicas.

La presente publicación es una de ellas. Con anterioridad se han publicado tres. A saber: la biografía de José Maria Gerenabarrena, con ocasión del 10º aniversario de su fallecimiento; el Batzoki y Emakume Abertzale Batza de Asparrena, con ocasión del 80º aniversario de su constitución y la biografía de Lázaro Gancedo Salmantón (1900-2001).

Todas y cada una de ellas pretenden profundizar en el conocimiento de las personas y de los hechos y, en cualquier caso, tributar un sentido homenaje a quienes, con anterioridad a todos nosotros y nosotras, dieron lo mejor de sí a nuestra patria, Euzkadi.

Gaur eta hemen, euskal abertzaletasunak Arabako lurretan egindako bidea ezagutzeko aukera berri baten aurrean gaude. Egileak, Manuel González Pastor Oiongo semea eta gasteiztartutakoa dugun Roman Berriozabal Azpitarte, aski ezagunak dira alderdilanetan. Biek, elkar hartuta, Abertzaletasunak Oiongo herrian emandako lehen urratsen berri ematen digute.

Niri gertatu zaidan bezala, zera espero dut: liburuan jasotako azalpenak eta argazkiak gogoko izango dituela irakurleak. Era berean, Oionen EAJ-PNV osatzen duten pertsonek herriko aitzindariak etengabe gogoan izango dituztela espero dut. Argi dut gogoan izango dituztela bere aitzindaritza-lanean, unean uneko nahigabeen aurrean leher egin gabe, garai bateko ardo- eta zereal-lurrean JEL gotorlekua eraiki zuten pertsonak.

Iraganean bezala, distantzia laburra dago Oiondik Logroñora. Gertutasun geografikoa nabarmena da. Iraganean ez bezala, gaur eta hemen Oionek albo batera utzita dauka tradizionalismoaren kolorea. Gaur eta hemen, Oion aniztasunaren erakusgarri nabarmena da. Aniztasun horren baitan egiteko jakina izan du EAJ-PNVk. Gaur ere egiteko hori agerikoa da eta, etorkizunean ere, zer esan eta zer egin ugari izango dute jeltzaleek Oionen. Ez dut inongo zalantzarik.

En la presente ocasión nos hallamos ante una nueva aproximación al conocimiento del nacionalismo vasco en tierras alavesas. Los autores, el oyonés Manuel González Pastor y el gasteiztarra de adopción Román Berriozabal Azpitarte, ambos conocidos por su militancia activa en EAJ-PNV, nos adentran en los primeros momentos del nacionalismo vasco en Oyón.

Espero que, como en mi caso personal, la información textual y gráfica recogida en este libro sea del agrado de cuantas personas accedan a la misma. Confío, asimismo, que los hombres y mujeres que en Oyón conforman EAJ-PNV, recordarán permanentemente a los pioneros que, sin rendirse a los sinsabores del momento, erigieron un baluarte de JEL en otrora tierra de vino y de cereal.

Hoy como ayer, Oyón "está situada a dos pasos" de Logroño. Hoy, a diferencia de ayer, Oyón ha dejado a un lado el tinte monocolor tradicionalista que le caracterizó y es un claro escaparate de la pluralidad. En ella el nacionalismo vasco representado por EAJ-PNV ha tenido, tiene y, a buen seguro, tendrá un destacado papel que desempeñar. No tengo ninguna duda.

Gasteiz, 2015-03-03.

*Xabier Agirre López*

*Araba Buru Batzarraren presidentea / Presidente del Araba Buru Batzar*

# Sarrera

Hurbilketa honetan, Oiongo euskal abertzaletasunaren lehenengo aztarna antolatuak ezagutarazi, eta, ahal den neurrian, hedatu nahi dira, 1931ko apirilaren 12tik 1936ko uztailaren 18ra arteko aldia aztertuta.

Lana idazterakoan kontuan hartu dira protagonistak berek, hau da, Oiongo jeltzaleek egindako agiri guztiak (gutxi izan arren, interes handikoak direnak) eta aztertu den garaian prentsan argitaratu ziren erreferentzia guztiak, batez ere *Euzkadi* egunkarian eta *Arabarra* hamabostaldiko argitalpenean argitaratutakoak. Era berean, egoki iruditu zaizkigun iturri bibliografikoak kontsultatu ditugu, batez ere Santiago de Pablo Contreras irakasleak argitaratutakoak, abertzaletasunak unean uneko hauteskunde-prozesu bakoitzean izan zuen eragina ezagutu ahal izateko.

Argitalpen honetan jasotako informazioa eta argazkiak egoki iruditu zaigun bezala antolatu dira, ahal zen neurrian gertaeren sekuentzia kronologikoa errespetatuz. Era berean, uneko gertaera historiko esanguratsuenen esparruan kokatu dira. Bistako arrazoien ondorioz, gertaerak ahalik eta ondoen laburbiltzen saiatu gara, horiek sakondu nahi dituenak bibliografia egokia kontsultatuko duelakoan. Halaber, une hartan Arabako Errioxako eskualdea osatzen zuten udalerri multzoari buruzko datu jakin batzuk islatzen saiatu gara egokitzat jo dugunean.

Euskal abertzaletasun antolatua nahiko berandu agertu zen Arabako Errioxan: aztertu den aldiaren hasieran kokatzen da. Hala ere, azpimarratu beharrekoa da, ondorengo jardueren bezpera izan baitzen, abertzaleek Arabako Errioxako lurretan egindako lehen hauteskunde-saioa. Saio hori urte batzuk lehenago gauzatu zen, 1919ko Aldundia partzialki berritzeko 1919an egin ziren hauteskundeetan. Hauteskundeak, hain zuzen, Gasteizko eta Guardiako barrutiei eragin zien eta azken barruti horri dagokionez, azpimarratze-

# Introducción

La presente aproximación, que abarca el tiempo comprendido entre el 12 de abril de 1931 y el 18 de julio de 1936, tiene por objeto dar a conocer y, en lo posible, difundir la primera presencia organizada del nacionalismo vasco en Oyón.

En su redacción se han tendido en cuenta todos aquellos documentos, pocos pero en cualquier caso de gran interés, producidos por los propios protagonistas, los nacionalistas o jeltzales de Oyón, así como cuantas referencias de prensa se publicaron en el tiempo objeto de estudio, especialmente en el diario *Euzkadi* y en la publicación quincenal *Arabarra*. Igualmente, hemos consultado las fuentes bibliográficas oportunas, especialmente las publicadas por el profesor Santiago de Pablo Contreras, para, de esa forma, conocer la incidencia nacionalista en cada uno de los procesos electorales llevados a cabo en cada momento.

La información así como las fotografías contenidas en la presente publicación han sido ordenadas siguiendo, en lo posible, la secuencia cronológica de los hechos. Asimismo han sido ubicadas en el marco de los hechos históricos más relevantes del momento. Por razones obvias, hemos procurado sintetizar dichos hechos, en la esperanza de que, quien desee profundizar en los mismos, acuda a la bibliografía pertinente. Cabe decir que, siempre que se ha considerado oportuno, hemos tratado de reflejar determinados datos relativos al conjunto de las localidades que componían en aquel momento la comarca riojano-alavesa.

La presencia, más o menos organizada, del nacionalismo vasco en Rioja Alavesa es tardía. Se localiza en el arranque del periodo objeto de estudio. No obstante, es de justicia subrayar, ya que supuso la antesala de actuaciones posteriores, la primera incursión electoral de los nacionalistas en tierras riojano-alavesas. Dicha incursión se llevó a cabo años antes, con ocasión de la renovación parcial de la Diputación



CARNET POLITICO

**Propaganda nacionalista en Oyon**

Publicamos una brevísima información dando cuenta de la celebración de un acto nacionalista en Oyon (Araba), a cuatro kilómetros de Logroño.

Hoy queremos dar algún detalle más, por cuanto el acto revistió verdadera importancia, no obstante tratarse de una zona completamente erderdunizada, a pesar de hallarse en el País Vasco.

Celebróse bajo la organización de un grupo de nacionalistas de la localidad en un local amplio habilitado para el acto.

Mucho público acudió a recibir a los oradores a la carretera.

Habló en primer lugar el señor Ipiña, quien hizo una exposición de temas nacionalistas, presentando varios ejemplos concluyentes.

Después, el señor Arbeloa pronunció un discurso doctrinal, todo él.

Hizo acertadas definiciones de los vocablos República, Monarquía, Democracia, Libertad, etc.

Destacó la figura de Arana Goiri'tar Sabin, desconocida para numerosa parte del auditorio. Hizo especial hincapié en el juramento de Larrazabal, y en la forma en que lo cumplió.

Terminó demostrando la destacadísima personalidad de Euzkadi como nación, lo que la autoriza para regirse por sus propias leyes, leyes cuyo prestigio queda bien manifiesto con el hecho de que hayan sido adoptadas por otras grandes naciones.

Los oradores fueron muy aplaudidos.

Según nuestras referencias, el público, algo frío al principio, no tardó en sentirse vasco, y aplaudió calurosamente a los oradores.

Terminado el acto, los oradores visitaron al alcalde, a quien agradecieron la acogida que en el pueblo se les había dispensado. El alcalde, a su vez, les agradeció la visita felicitándoles por los discursos pronunciados.

*Euzkadi, 1931ko abenduaren 11koa, 5. or.*
*Euzkadi, 11 de diciembre de 1931, página 5.*

provincial de 1919, que afectó a los distritos de Vitoria-Gasteiz y de Laguardia. Respecto a esta última demarcación cabe indicar la presentación del candidato jeltzale, natural de Elciego, Pantaleón Ramírez Bañares Sáenz de Olano Guinea, también conocido como Pantaleón Ramírez Olano. Tras superar con éxito (240 votos) la antevotación previa, Pantaleón vio como el diario *Heraldo Alavés*, del que era redactor, se desmarcó rápidamente.

> *"Excusamos decir cuán querido es en esta casa nuestro buen camarada y el vivo interés que nos inspira cuanto personalmente le afecta, pero la política es la política, y no podemos seguirle en esa aventura que emprende por los electorales campos riojanos, aparte de otras razones, por la significación partidista con que rotula su candidatura".*
>
> Heraldo Alavés, 1919-06-30, página 1.



**Bi abertzale aipagarri**

*1968a baino lehenago egindako argazki honetan, Oionen abertzaletasunaren zabalkundean aritu ziren bi pertsona handi ageri dira: Juan Manuel Ortuzar Uriarte abadea eta Senén Palacios.*

**Dos nacionalistas de renombre**

*En la presente fotografía, tomada con anterioridad a 1968, aparecen dos grandes protagonistas de la difusión del nacionalismo vasco en Oyón: el sacerdote Juan Manuel Ortuzar Uriarte y Senén Palacios.*

koa da Eltziegoko Pantaleón Ramírez Bañares Sáenz de Olano Guinea hautagai jeltzalea aurkeztu zela, Pantaleón Ramírez Olano izenez ere ezaguna. Aurretiazko bozketa arrakastaz (240 boto) gainditu ondoren, Pantaleónek *Heraldo Alavés* egunkaria berehala aldentzen ikusi zuen (bera egunkari horretako erredaktorea zen).

> *"Pena handiz adierazi behar dugu gure etxean oso maitatua dela adiskide on hau eta interes bizia pizten digula pertsonalki eragiten dionak, baina politika politika dela eta ezin garela bere bidelagun izan Errioxako hauteskundeetan hartu duen abentura horretan, bere hautagaitzak duen esanahi alderdikoiagatik, besteak beste".*
>
> Heraldo Alavés, 1919-06-30, 1. or. (itzulita dago).

Guardiako esparruan Arabako Errioxako udalerriak eta Arabako Mendialdeko beste batzuk sartzen ziren eta esparru horretan bertan lortutako lau probintzia-aulkiak karlista eta liberalek osatutako koalizio bitxi bateko hautagaien esku gelditu ziren. Aurkeztu ziren 8 hautagaietatik herriaren babes gutxien (570 boto) jaso zuena jeltzalea izan zen. Hala, bere jaioterrian (Eltziegon) eta Lapuebla de Labarcan beste inork baino boto gehiago jaso zituen. Oionen, berriz, ez zuen boto bakar bat ere jaso. Félix Rodríguez Juguerak, esparru gasteiztarreko hautagai jeltzaleak, Arabako Errioxako hautagaiak baino boto gutxiago eskuratu zituen (459 boto).

Bada, hori azalduta, 1931n kokatzen gara, orain arte ezagutzen diren lehenengo agiri-erreferentziak une hartan agertu baitziren: udal hauteskundeetan (apirilak 12) eta Gorte Konstituziogileen Hauteskundeetan (ekainak 28). Lehenengo erakunde abertzalea Eltziegon sortu zen, goian aipatutako hauteskunde-hitzorduak gertatu eta denbora gutxira. Izan ere, herrian batzokia ireki zen (uztailak 28). Ondoren, Oiongo Euzko Gaztedia (Oyon´go Euzko-Gastedija izenez ezaguna) sortu zen (1932ko azaroak 19); Eltziegoko Emakume Abertzale Batza (EAB) taldea eratu zen (1933ko otsai-

Los cuatro escaños provinciales del distrito de Laguardia, que comprendía a los municipios de Rioja Alavesa así como a otros de la Montaña Alavesa, fueron a parar a manos de los candidatos de una extraña coalición formada por carlistas y liberales. El candidato jeltzale fue el candidato, de los 8 que se presentaron, que obtuvo el menor apoyo popular (570 votos). Fue el más votado en su pueblo natal, Elciego, y en Lapuebla de Labarca. No obtuvo ni un solo voto en Oyón. Félix Rodríguez Juguera, candidato jeltzale del distrito gasteiztarra, obtuvo menos votos (459 votos) que el candidato riojano-alavés.

Una vez hecho el inciso anterior, nos situamos en 1931, momento en que aparecen las primeras referencias documentales que se conocen hasta el presente: en las elecciones municipales (12 de abril) así como en las correspondientes a las Cortes constituyentes (28 de junio). La primera entidad nacionalista se constituyó en Elciego, al poco tiempo de las citas electorales. Se trata de la apertura del batzoki local (28 de julio). Le siguieron la constitución de Juventud Vasca de Oyón, también conocida como Oyon´go Euzko-Gastedija (19 de noviembre de 1932); la constitución de la agrupación local de Emakume Abertzale Batza (EAB) (=Agrupación de Mujeres Patrióticas) de Elciego (finales de febrero de 1933); la constitución de Juventud Vasca de Kripan (30 de marzo de 1933); la constitución del batzoki de Laguardia (22 de abril de 1933); la inauguración del batzoki de Oyón (17 de septiembre de 1933) y la constitución de Juventud Vasca de Lanciego (26 de julio de 1934).

Todas las entidades indicadas más arriba formaron parte, al igual que en otros lugares, del entramado organizado en torno al pensamiento jeltzale y, consiguientemente, a Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV).

No hemos encontrado vestigios, ni en Oyón ni en el resto de localidades riojano-alavesas, de Acción Nacionalista Vasca-Euzko Abertzale Ekintza (ANV-EAE). Esta formación política se constituyó el 30 de

laren amaiera); Kripango Euzko Gastedija eratu zen (1933ko martxoak 30); Guardiako batzokia sortu zen (1933ko apirilak 22); Oiongo batzokia inauguratu zen (1933ko irailak 17); eta Lantziegoko Euzko Gastedija eratu zen (1934ko uztailak 26).

Goian aipatutako erakunde guztiak, beste leku batzuetan bezalaxe, pentsamendu jeltzalearen barruan, eta, beraz, Euzko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) barruan antolatutako sarearen parte ziren.

Oionen eta Arabako Errioxako gainerako udalerrietan ez dugu Acción Nacionalista Vasca-Euzko Abertzale Ekintza (ANV-EAE) alderdiaren aztarnarik aurkitu. Alderdi politiko hori, hain zuzen ere, 1930eko azaroaren 30ean eratu zen, sortu berri zen Euzko Alderdi Jeltzalea utzi ondoren. 1921. urteaz geroztik bi zatitan banatutako familia jeltzalea berriz batzean sortu zen azken hori, hau da, Comunión Nacionalista Vasca eta Partido Nacionalista Vasco edo Aberri biltzean. Bilketa hori Bergaran burutu zen, bi alderdiek 1930eko azaroaren 19an egin zuten batzarrean.


Propaganda nacionalista en Araba

Es digna de aplauso la entusiasta labor que vienes llevando a cabo los abertzales arabarras en su campaña de propaganda.

Se han propuesto que no haya ni un solo pueblo en toda su extensa región donde no se haya oído la voz cálida y entusiasta de los propagandistas del nacionalismo, y lo van a conseguir si siguen desplegando tanta actividad como hasta ahora.

El domingo, en Oyón, hablarán la señorita Gamarra, don Isaac Diez Iharrondo, don Francisco Jabier de Landaburu y don Esteban de Isusi.

Recordamos también que en Legutiano habrá otro mitin de afirmación nacionalista, en el que hablarán los señores Susaeta y Jaurregi (don Jesús).

La conferencia de don José Antonio de Agirre

Había despertado la mayor expectación

*Euzkadi, 1932ko maiatzaren 7koa, 5. or.*
*Euzkadi, 7 de mayo de 1932, página 5.*

noviembre de 1930, tras abandonar el recién refundado Partido Nacionalista Vasco. Éste nació de la reunificación de la familia nacionalista dividida en dos desde 1921: Comunión Nacionalista Vasca y Partido Nacionalista Vasco o Aberri. La reunificación se materializó en la asamblea celebrada por ambas facciones en Bergara el 19 de noviembre de 1930.

En lo concerniente a Oyón cabe decir que el conocimiento que poseemos alcanza a la formación política, –PNV–, así como al batzoki local, –sede formal de Juventud Vasca e, indirectamente, baluarte de EAJ-PNV en esta parte de Rioja Alavesa–. Apenas hemos encontrado noticias que hagan referencia a la presencia, más o menos organizada en torno a EAB, de mujeres nacionalistas oyonesas. Lo poco que sabemos fue indicado por Policarpo Larrañaga (1978).


La propaganda nacionalista en Araba

En el calendario de la propaganda nacionalista por Araba estaba señalado el día 8 para la villa Oyon.

Un retraso en la salida y otro ocasionado por el estado de la carretera fueron las causas que nos hicieron llegar retrasados a la solemne misa mayor que habíamos prometido cantar. Pero tan sentido contratiempo se subsanó por las amigables gestiones del digno párroco, señor Ortuzar, pudiendo así cumplir los deberes religiosos dominicales en una misa celebrada a las doce y media por un sacerdote pedido a Logroño.

Y en el transcurso del santo sacrificio oímos las sentidas notas de la música vasca, para finalizar con el "Iñaki Deuna", que resonaba en las amplias naves de la bella iglesia de Oyon con fuerza sin igual.

Antes de la misa los grupos de ezpatadantza e hilanderas dieron varias exhibiciones, que fueron aplaudidas hasta por los socios que se asomaban en las ventanas del Centro Republicano-radical.

Camino de Logroño para reponer las

*Euzkadi, 1932ko maiatzaren 11koa, 6. or.*
*Euzkadi, 11 de mayo de 1932, página 6.*

Oioni dagokionez, esan beharra dago daukagun informazioa alderdi politikoari (EAJ) eta herriko batzokiari (Euzko Gastedijaren egoitza formala, eta, zeharka, EAJ-PNVren gotorlekua Arabako Errioxako alderdi honetan) buruzkoa dela. Ia ez dugu albisterik aurkitu Oiongo Emakume Abertzale Batzaren presentzia antolatua aipatzen duenik. Policarpo Larrañagak (1978) esandakoa baino ez dakigu. Egile horren esanetan, 1936an herriko emakumeen talde bat zegoen, nahiz eta ez duen adierazten berau noiz eratu zen. Era berean, dioenez, Guardiako, Eltziegoko, Bastidako eta Oiongo emakume talde batek Gasteizen egindako ekitaldi batzuetan parte hartu zuen 1932ko apirilaren 16an eta 17an, Arabako hiriburuko EAB inauguratu zela ospatzeko.

Este autor da por hecho la existencia, en 1936, de una agrupación de emakumes locales, aún cuando no indica su fecha de constitución. Asimismo apunta que un grupo de mujeres de Laguardia, Elciego, Labastida y Oyón participó en los actos llevados a cabo en Gasteiz los días 16 y 17 de abril de 1932 con ocasión de la inauguración de EAB de la capital alavesa.

## Hastapenak

Garai hartako iturri abertzaleen eta oiondar aitzindari horien ondorengoei jasotako testigantzen arabera, Eli Gallastegi bilbotarra izan zen, beste kolaboratzaile anonimo batzuekin batera, hazia erein zuena, gero uzta oparoa biltzeko. Eli Gallastegi Uriarte "Gudari" (1892-1974), ustez, Oionen egoten zen udak pasatzen 1933. urtea baino lehen, 1931ko martxoaren erdialdean erbestetik itzuli ondoren (1925eko urrian Iparraldean, eta 1927an Mexikon).

> "(…). *Udan atseden hartzera joan ziren horiek irrika handiagoz egin zuten lan, lehenengo egunetako atsekabeen aurrean etsi gabe. Beste herrialde batzuetan erosotasun materialek segurtasun handiagoa eskaintzen zuten, baina abertzaletasuna ezpainetako hitzez harago doala eta bihotz eskuzabaleko gertaerak direla erakutsi zuten. Eta hala etorri ziren, beren indarrak berreskuratu ahala, ekimenak erein eta abiaraztera, joera ekonomikoak euskal ekonomiaren bidea ugaritzen zuen bitartean. (…)."*
>
> Euzkadi, 1933-09-19, 6. or. (itzulita dago).

## Inicios

Según fuentes nacionalistas de la época así como testimonios orales recogidos a los descendientes de aquellos oyoneses pioneros, fue el bilbaíno Eli Gallastegi, acompañado de otros anónimos colaboradores, quien plantó la semilla que, con el paso del tiempo, se transformó en ubérrima cosecha. Eli Gallastegi Uriarte "Gudari" (1892-1974) veraneó supuestamente en Oyón con anterioridad a 1933, tras su regreso, a mediados de marzo de 1931, del exilio (octubre de 1925, Iparralde; 1927, México).

> "(…). *Ellos, que fueron a descansar en el verano, trabajaron con noble afán, sin rendirse a los sinsabores de las primeras jornadas. Podían haber escogido pueblos en los que las comodidades materiales ofrecieran aliciente más fuerte; pero demostraron que el patriotismo no es palabra en labios, sino hechos en corazón generoso. Y allí fueron, a la par que para reponer sus fuerzas, a sembrar y a lanzar iniciativas, a la vez que el hilillo económico iba a acrecentar el caudal de la economía vasca.* (…)".
>
> Diario *Euzkadi*, 1933-09-19, página 6.

Eli Gallastegiren eraginari garrantzia kendu gabe, ez dugu alde batera utzi nahi Oiongo abade batek euskaltzaletasunaren zabalkundean, gutxienez, egindako lan egokia. Abade hori Juan Manuel Ortuzar Egiluz (Elantxobe, 1877 - Bilbo, 1968) da. Makina bat erlijio-gizon eta apaizen kasuan bezala, Ortuzar gartzelan sartu zuten 1936an. Geroztik, aske utzi arte, hainbat espetxetan izan zen (Gasteizko Karmengo komentuan eta gartzela probintzialean; Bilboko Karmelon; Langraiz Okan; Palenciako Dueñas-en eta Sevillako Carmonan. Libre utzi eta berehala (1940ko erdialdean), Cordobako Cabra eta Pedro Abad herrietara desterratu zuten. Euskal lurrera etorri bezain laster, Algortako Adoratrizetan jarri zen kapilau-lanetan. Unai Palacios Bernedok esanda, zera dakigu: bere aita zenak, Abdón Senén Palaciosek hain zuzen, ikaragarrizko estimua ziola. Unaik gogoan ditu bere familiak Algortan bizi zen apaizari egindako bisitaldiak.

Sin menoscabo del influjo que pudo ejercer Eli Gallastegi, no descartamos el papel que pudo desempeñar uno de los sacerdotes de Oyón, al menos, en la difusión de las ideas vasquistas. Nos referimos a Juan Manuel Ortuzar Egiluz (Elantxobe, 1877 - Bilbao, 1968). Al igual que otros muchos sacerdotes y religiosos, Ortuzar fue encarcelado en 1936 y pasó, hasta su puesta en libertad, por numerosas cárceles y prisiones (convento del Carmen y cárcel provincial de Vitoria-Gasteiz; Carmelo de Bilbao; Nanclares de la Oca; Dueñas, en Palencia, y Carmona, en Sevilla). Una vez obtuvo su libertad (mediados de 1940), fue desterrado a las localidades cordobesas de Cabra y Pedro Abad. Una vez en tierras vascas, fue capellán de las MM. Adoratrices de Algorta. Sabemos, por testimonio de Unai Palacios Bernedo, el afecto que sentía por él su padre Abdón Senén. Unai recuerda las visitas que su familia realizó al sacerdote en Algorta.

## Udal hauteskundeak (1931)

Aztertzen ari garen aldian egin ziren hauteskundeen arteko lehen aipamena 1931ko apirilaren 12an ospatu ziren udal hauteskundeei buruzkoa da. Oionek barruti eta atal bakarra eratu zuen. Bertan atxikita zeuden 256 gizon hautesle. Guztira 221 pertsonak eman zuten botoa. Andrazkoei buruz zera esan beharra dago: andrazkoek 1933ko Ohiko Gorteetarako hauteskundeetan eman zutela lehen aldiz botoa.

Jokoan zeuden 9 zinegotzigoetara 12 hautagai aurkeztu ziren: Frutos Zuazo García (112 boto), Domingo San Juan Cabredo (110), Pablo Zabala Maestu (110), Lorenzo Galarza Fernández (110), Dionisio Maestu Galarza (110), Eduardo Maestu Areitio (110), Pablo Martínez Bujanda (109), Julio Zabala Solchaga (108), Áureo Ansotegi Gil (108), Pablo Palacios Bernedo (109), Julio Pérez Gómez (108) eta Julián Fernández Murga (107).

## Elecciones municipales (1931)

La primera cita electoral de cuantas fueron realizadas en el espacio de tiempo que nos ocupa es la correspondiente a las elecciones municipales celebradas el 12 de abril de 1931. Oyón constituía un distrito y sección únicos. Al mismo estaban asignados 256 electores varones. En total votaron 221 personas. Cabe decir que las mujeres votaron por primera vez en las elecciones a Cortes ordinarias celebradas en noviembre de 1933.

A las 9 concejalías en juego concurrieron 12 candidatos: Frutos Zuazo García (112 votos), Domingo San Juan Cabredo (110), Pablo Zabala Maestu (110), Lorenzo Galarza Fernández (110), Dionisio Maestu Galarza (110), Eduardo Maestu Areitio (110), Pablo Martínez Bujanda (109), Julio Zabala Solchaga (108), Áureo Ansotegi Gil (108), Pablo Palacios Bernedo (109), Julio Pérez Gómez (108) y Julián Fernández Murga (107).

Hauteskunde-egunean bertan egindako aktaren arabera, zinegotzi horietako batek ere ez zuen joera politiko garbirik: independenteak ziren edo ez zuten joera zehatzik. Egun batzuk beranduago, Errepublika aldarrikatu ondoren, apirilaren 16an hauteskunde-erroldaren udalbatzak errepublikazaletzat jo zituen. Zinegotzi horien izaera errepublikazalea, bada, denboraren poderioz zehazten joan zen: 1933ko irailean 4 zinegotzi mugitzen ziren Comunión Tradicionalista delakoaren inguruan eta 5 zinegotzi Alejandro Lerrouxen Partido Republicano Radical (PRR) delakoaren inguruan. Zinegotzi horien hasierako atxikipen ideologikoa desberdina da egile bakoitzaren arabera: De Pabloren esanetan (1989:335), adibidez, 9rak izan ziren errepublikazaleak; Estornés Zubizarretak (1990:599), bestetik, 5 independenteak zirela eta 4k afiliazio monarkiko liberala zutela dio.

Egiaztatu beharrekoak egiaztatu ondoren, 9 gizon hauek zinegotzi izendatuak izan ziren: Frutos Zuazo García, Pablo Zabala Maestu, Dionisio Maestu Galarza, Lorenzo Galarza Fernández, Eduardo Maestu Areitio, Domingo San Juan Cabredo, Pablo Martínez Bujanda, Julio Pérez Gómez eta Pablo Palacios Bernedo.

Oyon'go Euzko Gastedija taldera atxikitako pertsonei buruzko informazio zehatza falta denez, 1932ko urritik aurrera ez dugu ikusi herriko abertzalerik hauteskundeetara aurkeztu ziren hautagaien artean. Aitzitik, 1931ko hauteskunde-erroldan izena emandako hautagaien zerrendan baten batzuk aurkitu ahal izan ditugu: Basilio Fernández Agirre (26 urte, jornalaria, Buenos Aires kaleko 7. zenbakian bizi zena) eta Fortunato Fernández Agirre (25 urte, jornalaria, Baranda kaleko 11. zenbakian bizi zena) anaiak; Sabas Palacios Ansotegi (56 urte, nekazaria, Sortzez Garbia kaleko 8. zenbakian bizi zena) eta bere seme Eusebio Palacios García (25 urte, nekazaria, Sortzez Garbia kaleko 8. zenbakian bizi zena). Bestalde, ez dira erroldan agertzen, 25 urtetik beherakoak direlako, Abdón Senén Palacios García, Ángel Yáñiz Díaz de Cerio eta Arturo Palacios García.

De acuerdo al acta levantada el mismo día de elecciones, ninguno de dichos concejales tenía una significación política marcada: bien eran independientes bien sin definición alguna. Días más tarde, una vez proclamada la República, con fecha 16 de abril, la junta municipal del censo electoral los calificó de republicanos. El carácter republicano de dichos concejales fue matizándose con el paso del tiempo: en septiembre de 1933, 4 estaban en la órbita de Comunión Tradicionalista y 5 en la correspondiente al Partido Republicano Radical (PRR), de Alejandro Lerroux. La adscripción ideológica inicial de dichos concejales difiere según los autores: De Pablo (1989:335) indica que los 9 fueron republicanos; Estornés Zubizarreta (1990:599), por su parte, destaca el carácter independiente de 5 y la afiliación monárquica liberal de 4.

Tras las correspondientes comprobaciones, fueron proclamados concejales los siguientes 9 señores: Frutos Zuazo García, Pablo Zabala Maestu, Dionisio Maestu Galarza, Lorenzo Galarza Fernández, Eduardo Maestu Areitio, Domingo San Juan Cabredo, Pablo Martínez Bujanda, Julio Pérez Gómez y Pablo Palacios Bernedo.

A falta de una información exhaustiva de, al menos, las personas asociadas a Juventud Vasca de Oyón, a partir de octubre de 1932, no reconocemos a ningún nacionalista de la localidad entre los candidatos que se presentaron a la cita electoral. Por el contrario, hemos reconocido a algunos entre los electores inscritos en el censo electoral de 1931: los hermanos Basilio Fernández Agirre (26 años, jornalero, con residencia el calle Buenos Aires 7) y Fortunato Fernández Agirre (25 años, jornalero, con residencia en la calle Baranda 11); Sabas Palacios Ansotegi (56 años, labrador, con residencia en la calle Concepción 8) y su hijo Eusebio Palacios García (25 años, labrador, con residencia en la calle Concepción 8). Por el contrario, no figuran en dicho censo, por tener menos de 25 años, Abdón Senén Palacios García, Ángel Yáñiz Díaz de Cerio y Arturo Palacios García.

Eskualdeko gainerako udalerrien aldean, aukeratutako zinegotzi jeltzaleen kopurua desberdina da egile baten edo bestearen arabera. Estornés Zubizarretaren esanetan (1990:595, 597 eta 602), 3 zinegotzi Kripanen; 1 Lezan eta 2 Eskuernagan. De Pablok (1989: 333 y 339), bestalde, 9 zinegotzietako 1 esleitzen die Eltziegoko jeltzaleei. Horiek 29. artikuluaren arabera izendatu zirenez, hau da, aurretiazko hauteskunde-borrokarik gabe, Eltziegoko auzokideak bozkatzera deitu ziren 1933ko apirilaren 23an. Herritarren bozketaren ondoren, EAJ-PNVk 9 zinegotzigoetako 2 eskuratu zituen.

## *Lizarrako Autonomia-estatutua (1931)*

Errepublika aldarrikatu ondoren, EAJ-PNVk Euzkadiko autonomia behar bezala jorratzeko une egokia zela pentsatu zuen. Horrenbestez, kanpaina sendo bat abiarazi zuen, José Antonio Agirre Lekube alkate getxoztarraren eskutik. 1936ko urriaren 7tik aurrera Euzkadiko Lehendakaria izan zen bera. Agirre izan zen, era berean, alkateen mugimendua delakoaren burua eta bertan parte hartu zuten alkate abertzaleek, tradizionalistek eta independenteek.

Aipatu mugimendu hori herrialdean autonomia-estatutua jartzeko asmoz proposatu zen. Horretarako, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos (EI-SEV) sozietateak egindako estatutuen gaineko proiektua hartu zuten abiapuntutzat. Baina proiektu horren hainbat artikulu aldatu egin ziren zuzenketa bidez, batez ere erlijioari buruzko alderdiak jorratzen zituzten horiek. Testuan erlijioari buruz sartutako ideien ondorioz, sozialistek eta errepublikazaleek, Eusko Ikaskuntzaren testuari aurpegi txarrik jarri ez ziotenek, atzera egin zuten eta haren aurka agertu ziren ordutik aurrera. Araban, halaber, errepublikazaleen bazterkeria horrekin batera, foru arabarrak goretsi ziren, eta, ondoren, estatutu guztiz arabarra lortzeko desioa areagotu zen.

Respecto al resto de municipios de la comarca, el número de concejales nacionalistas elegidos varía de un autor a otro. Según Estornés Zubizarreta (1990:595, 597 y 602), 3 concejales en Kripan; 1 en Leza y 2 en Villabuena. De Pablo (1989:333 y 339), por su parte, adjudica a los nacionalistas de Elciego 1 de las 9 concejalías. Dado que las mismas fueron asignadas mediante el artículo 29, ésto es sin lucha electoral previa, los vecinos de Elciego fueron convocados a las urnas el 23 de abril de 1933. En la presente ocasión, por votación popular, EAJ-PNV se hizo con 2 de las 9 concejalías.

## *Estatuto de autonomía de Estella (1931)*

Tras la proclamación de la República EAJ-PNV entendió que era el momento propicio para abordar debidamente la autonomía de Euzkadi. Por ello puso en marcha una intensa campaña que tuvo por persona de referencia a José Antonio Agirre Lekube, alcalde de Getxo y, a partir del 7 de octubre de 1936, Lehendakari de Euzkadi. Agirre encabezó el denominado movimiento de alcaldes, donde participaron alcaldes nacionalistas, tradicionalistas e independientes.

El movimiento citado se propuso dotar al País de un Estatuto de autonomía. Para ello, tomaron como punto de partida un proyecto estatutario elaborado por Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos (EI-SEV). Dicho proyecto fue modificado, vía enmiendas, en determinados artículos, especialmente en aquellos que abordaban algunas cuestiones de tipo religioso. Las pretensiones en materia religiosa introducidas en el texto hicieron que socialistas y republicanos, que no vieron con desagrado el texto de SEV, se echasen atrás y mostrasen su oposición en lo sucesivo. En Araba, asimismo, el rechazo republicano vino acompañado de la exaltación de los fueros alaveses y, consiguientemente, del deseo de un Estatuto netamente alavés.



106

Sr. D. SENEN PALACIOS

POR LOGROÑO-OYÓN

Bilbao 20 de Mayo de 1.932

Muy Sr. nuestro:

Tenemos el gusto de acompañar talón correspondiente al paquete que le facturamos a la estación de Logroño en gran velocidad conteniendo 1,500 hojas para el vecindario de Oyón y los 7 ejemplares de nuestra rebista, para que se sirva entregarlas a Marcelino Barbarias.

Sin otro particular quedamos suyos affmos en JEL.

RECUPERACIÓN DE DOCUMENTOS BILBAO



105

Sr. Dn. SENEN PALACIOS.

Por Logroño

O Y O N (Alaba)

Bilbao 17 de Mayo de 1.932

Muy estimado compatriota:

Por indicación del Sr. Jemein hemos remitido a su nombre por F.C. en gran velocidad facturado a la Estación de Logroño, un paquete conteniendo 1.500 hojas detallando en ellas todo lo acontecido en ese pueblo el día 8 del mes actual para que sean repartidas por todo ese ~~pueblo~~. vecindario

Dentro del paquete va incluído otro a nombre de nuestro querido amigo Marcelino de Barbarías (Bruno) al que rogamos se lo entregue.

Esta expedición se la hemos facturado a la Estación de Logroño por creer que de esta forma llegaría antes a su poder.

Sin otro particular quedamos suyos affmos. en JEL.

RECUPERACIÓN DE DOCUMENTOS BILBAO

*Euzko-Idazkaltza-Buruba (EIBI) izeneko Alderdiko idazkaritza-gunetik Senén Palaciosi egindako bi idazki (1932ko maiatzaren 17 eta 20)*
*Dos comunicaciones remitidas desde el Secretariado General Vasco de EAJ-PNV a Senén Palacios (17 y 20 de mayo de 1932)*

Mugimendu horren ondoriozko estatutuaren testua udal euskaldunek aztertu zuten Lizarran, 1931ko ekainaren 14an egindako batzarrean. Bertaratu ziren udalek (300) eta atxiki zirenek estatutu-proiektua onartu zuten. Euskal lurralde penintsularretako udalen % 90 ordezkatzen zuten. Ez ziren bertaratu, hala ere, Bilboko, Donostiako, Gasteizko eta Iruñeko udalak.

Arabako 77 udalerritik 57k babestu zuten estatutua (% 74,02). Horietatik 47 bertaratu ziren batzarrera; gainerakoek, ez zirenez bertaratu, atxikiko zirela adierazi zuten. 47 udalerri horien artean zeuden Arabako Errioxako honako hauek: Gorrebusto, Kripan, Eltziego, Bilar, Bastida, Labraza, Lantziego, Moreda eta

El texto estatutario resultante fue sometido a la consideración de los ayuntamientos vascos en la asamblea que los mismos celebraron en Estella el 14 de junio de 1931. Los ayuntamientos presentes (300) así como los que se adhirieron aprobaron el proyecto de Estatuto que se sometió a su consideración. Representaban al 90 % de los ayuntamientos de los territorios vascos peninsulares. No estuvieron presentes los ayuntamientos de Bilbao, Donostia-San Sebastián, Vitoria-Gasteiz y Pamplona.

De un total de 77 municipios existentes en Araba, 57 mostraron su apoyo al Estatuto (74,02 %). De ellos, 47 acudieron a la mencionada asamblea; el

Ekora. Aitzitik, 20 udalerri estatutuaren aurka agertu ziren. Horien artean Oion eta beste hauek: Mañueta, Guardia, Lapuebla de Labarca, Leza, Navaridas, Gatzaga Buradon, Samaniego eta Eskuernaga. Zenbateko absolutuez harago, biztanleriari erreparatuz gero, lurraldeko bi udalerri taldeen arteko oreka nabarmena zen. Estatutuaren aurka zeuden udalerriak zenbakiz gutxiago ziren arren, udalerri horien artean Gasteiz egoteak pisu handia zuen.

Oionek eta Lizarrako Estatutuaren aurkako gainerako udalek (goian aipatutakoek) berriz ere boto bera eman zuten, Batzorde kudeatzaileak eskatuta, 1931ko uztailaren 23an udal arabarrek gauzatu zuten bileran. Orduko horretan baiezko botoa eman zioten Batzorde kudeatzaileak eskatuta, udal ordezkariek eta politikariek (errepublikazaleek, sozialistek, EAJk eta ANVk) osatutako lan taldeak egin zuen estatutu proiektu arabarrari. Berau sustatu zuen erakundearen arabera, estatutuaren testu arabarra idatzi nahi zen lehendabizi, ondoren, lurralde kideekin adostuta, euskal estatutu federala lortzeko. Batzar horretan ahozko desadostasun handiak egon ziren eta, aurretik Lizarrako Estatutua onartu arren, Arabako Estatutuari buruzko bozketa Lizarrakoa Gorteetan onartu arte atzeratu nahi zutenek aretoa abandonatu zuten. Guztira 21 udalek babestu zuten estatutu arabarra. Batzordeko ordezkari politikoek ere beren babesa eman zioten. Baina udal babesa ez zenez behar adinakoa edo altuagoa, estatutuaren proiektua bertan behera geratu zen.

Lizarrako Estatutuaren proiektua onartutakoan, berau babestu zuten alderdiei, hau da, EAJ-PNV eta tradizionalistei, egokia iruditu zitzaien baterako hautagaitza bat eratzea, urte horretako ekainaren 28rako deitutako Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeetarako. Hala, parlamentuaren egoitzan onartutako estatutua defendatuko zuten.

Beste lurralde batzuetan ez bezala, baterako hautagaitza horrek ez zuen arrakastarik izan Araban. Alkateen batzordeak hautagaiei buruz zuen iritzia jakin baino lehen, José Luis Oriol tradizionalistak bere burua

resto, no pudiendo hacerlo, mostró su adhesión. Entre esos 47 municipios se encontraban los siguientes de Rioja Alavesa: Barriobusto, Kripan, Elciego, Elvillar, Labastida, Labraza, Lanciego, Moreda y Yécora. Por el contrario, 20 municipios mostraron su oposición al Estatuto. Entre ellos Oyón así como las siguientes localidades: Baños de Ebro, Laguardia, Lapuebla de Labarca, Leza, Navaridas, Salinillas de Buradón, Samaniego y Villabuena. Más allá de las cifras absolutas, cabe decir que, desde el punto de vista poblacional, el equilibrio entre ambos grupos de municipios en el territorio era evidente. Pese a la inferioridad numérica de los municipios opuestos al Estatuto, la presencia de Vitoria-Gasteiz entre dichos municipios, era evidente.

Oyón volvió a coincidir en el voto con el resto de ayuntamientos opuestos al Estatuto de Estella en la asamblea que, a iniciativa de la Comisión gestora, llevaron a cabo los ayuntamientos alaveses el 23 de julio de 1931. En la presente ocasión dieron su voto afirmativo al proyecto del Estatuto alavés elaborado, a instancias de la Comisión gestora, por un grupo de trabajo formado por representantes municipales y políticos (republicanos, socialistas, PNV y ANV). Según la entidad promotora, primeramente se trataba de dotarse de un texto estatutario alavés para, más tarde, de acuerdo con los territorios hermanos, abogar por un Estatuto federal vasco. Dicha asamblea se caracterizó por numerosos enfrentamientos verbales así como por el abandono de la sala de todos aquellos municipios que, habiendo aprobado con anterioridad el Estatuto de Estella, solicitaban aplazar la votación relativa al Estatuto alavés, hasta que el de Estella fuera aprobado por las Cortes. En total fueron 21 los ayuntamientos que apoyaron al Estatuto alavés. También lo hicieron los representantes políticos de la comisión. Visto que el apoyo municipal no era igual o mayor al requerido, el proyecto estatutario particular decayó.

Una vez aprobado el proyecto de Estatuto de Estella, los partidos que lo apoyaban, EAJ-PNV y los tradicionalistas, estimaron oportuno constituir una candidatura conjunta para concurrir a las elecciones a

izendatu zuen hautagai gisa. Erantzuna berehalakoa izan zen: jeltzaleek eskualdean bertan, zehazki, Eltziegon jaiotako hautagai bat izendatu zuten: *Euzkadi* egunkariko zuzendaria eta kazetaria zen Pantaleón Ramírez Bañares Sáenz de Olano Guinea. Ez zen lehen aldia Pantaleón EAJ-PNV erakunde batean ordezkatzeko asmoz agertu zena. Lehen azaldu dugun bezala, halaxe egin zuen 1919an ere.

Lizarran onartutako Estatutuaren proiektua Gobernuko presidenteari entregatu zitzaion goian adierazitako hauteskundeak egin ondoren, hau da, irailaren 22an. Bere ibilbidea, hala ere, laburra izan zen. Konstituzioa onartu bezain pronto (1931ko abenduak 9), Estatutuko artikulu batzuk agerian geratu ziren, Konstituzioko testuan adierazitakoaren kontrakoak baitziren.

Cortes Constituyentes convocadas para el 28 de junio de ese mismo año, y proceder a la defensa del Estatuto aprobado en sede parlamentaria.

A diferencia de lo ocurrido en otros territorios, dicha candidatura conjunta no fraguó en Araba. Antes de conocer la decisión de la comisión de alcaldes respecto a los candidatos, el tradicionalista José Luis Oriol se autoproclamó candidato. La reacción fue inmediata, los jeltzales designaron a un candidato nacido en la comarca, en concreto en Elciego: el periodista y director del diario *Euzkadi* Pantaleón Ramírez Bañares Sáenz de Olano Guinea. No era la primera vez que Pantaleón aspiraba a representar en una institución a EAJ-PNV. Ya lo hizo, como se ha visto anteriormente, en 1919.

El proyecto de Estatuto aprobado en Estella fue entregado al presidente de Gobierno con posterioridad a las elecciones mencionadas más arriba, esto es el 22 de septiembre. Su recorrido fue corto. Tan pronto como fue aprobada la Constitución (9 de diciembre de 1931), determinados artículos del Estatuto quedaron en evidencia, no en vano contravenían lo dispuesto en el texto constitucional.

## Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeak (1931)

Errepublika 1931ko apirilaren 14an aldarrikatu eta bi hilabete eskas pasatakoan, boto-eskubidea zuten gizonei dei egin zitzaien, ekainaren 28an Gorte Konstituziogileen hauteskundeetan parte hartzeko. EAJ-PNVren erakunde arabarrak jokoan zeuden bi diputatu-aktetako bat eskuratu nahi zuen. Horretarako, gorago azaldu dugun bezala, Pantaleón Ramírez aurkeztu zuen. Hautagai jeltzaleak 4.615 boto lortu zituen Araba osoan (emandako botoen % 21,62) eta hautagai errepublikazale-sozialistarengandik (Félix Susaeta, 8.513 boto) eta tradizionalistarengandik (José

## Elecciones a Cortes Constituyentes (1931)

Eskualdeari dagokionez, jeltzaleek 6 boto eskuratu zituzten: Eltziegoko 3 zinegotzik hautagai jeltzaleen alde bozkatu zuten; gauza bera Kripanen ere. Beharbada 1931ko udal hauteskundeetan herri horretan aukeratutako 3 zinegotzi katolikoak izango ziren. Horietako bat, alkatea, EAJ-PNVn sartu zen 1936. urtearen hasieran (DE PABLO, Santiago, 1989:334, 340-341).

Aukeratu ziren eta auzitegi horren parte izan ziren pertsonen artean nabarmentzekoa da Francisco Basterretxea jeltzale bermeotarra, Nestor Basterretxea Arzadun (1924-2014) eskultore ospetsuaren aita.

Respecto a la comarca cabe decir que los jeltzales obtuvieron 6 votos: 3 concejales de Elciego votaron a los candidatos jeltzales; igual número de concejales lo hizo en Kripan. Es posible que se trate de los 3 concejales católicos elegidos en esta localidad en las municipales de 1931. Uno de ellos, el alcalde, ingresó en EAJ-PNV a primeros de 1936 (DE PABLO, Santiago, 1989:334, 340-341).

Entre otras personas que resultaron elegidas y pasaron a formar parte de dicho Tribunal cabe resaltar el jeltzale bermeano Francisco Basterretxea, padre del afamado escultor Nestor Basterretxea Arzadun (1924-2014).



Gorulari-talde biak (1933ko irailaren 17)

*Oiongo batzokiaren inaugurazio-ekitaldian aritu ziren gorulari-talde biak. Eurekin batera ikurrindun txikia txistua eta danbolinarekin. Atzeko ilaran, ezker-eskuin: Isabel XX (2.a); María Jesús Cabredo (7.a, ikurrinaren ondoan); Felisa Cabredo (8.a); Luisa Ansotegi (10.a). Aurreko ilaran, ezker-eskuin: XX. Cabredo (5.a); Cecilia XX (6.a).*

Los dos grupos de hilanderas (17 de septiembre de 1933)

*Los dos grupos de hilanderas que participaron en los actos de inauguración del batzoki de Oyón en compañía del abanderado txiki que porta txistu y tamboril. Fila de atrás, de izquierda a derecha: Isabel XX (2ª); María Jesús Cabredo (7ª, a la derecha de la ikurriña); Felisa Cabredo (8ª); Luisa Ansotegi (10ª). Fila delantera, de izquierda a derecha: XX. Cabredo (5ª); Cecilia XX (6ª).*

## Autonomia estatutuarekin lotutako erreferenduma (1933)

Oiongo batzokia inauguratu eta hilabete eta erdi pasatakoan, 1933ko azaroaren 5ean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzorde kudeatzaileek idatzitako autonomia estatutuaren proiektuarekin lotutako erreferenduma gauzatu zen. Proiektu hori Errepublika aldarrikatu zenetik hirugarrena zen. Arrakastarik gabeko bi saiakera egin ondoren, eta aurreko proiektuan behar adina egokitzapen eginda, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako batzorde kudeatzaileek estatutuen testu berri bat burutu zuten.

## Referéndum relacionado con el Estatuto de autonomía (1933)

A escaso mes y medio de la inauguración del batzoki de Oyón, con fecha 5 de noviembre de 1933, se llevó a cabo el referéndum relacionado con el proyecto de Estatuto de autonomía redactado por las Comisiones gestoras de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa. Dicho proyecto es el tercero desde la proclamación de la República. Tras dos intentos infructuosos y una vez que se realizaron los ajustes necesarios al proyecto anterior, las Comisiones gestoras de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa ultimaron un nuevo texto estatutario.

Erreferendum bidez herritarren iritzipean jarri baino lehen, euskal udalek Vitoria-Gasteizen 1933ko abuztuaren 6an egin zuten biltzarrean eztabaidatu eta bozkatu zen testua. Arabako karlistek eta PRRko errepublikazaleek ez zuten lortu udal gehienek probintzietako batzorde kudeatzaileek proposatutako estatutuaren kontra bozkatzerik, zentzu horretako proposamenak egin arren. Arabako 41 udalek proposamenaren aldeko botoa eman zuten (biztanleriaren % 71,3); 26k kontra bozkatu zuten (% 23,7); 10 abstenitu egin ziren (% 4,9). Oiongo udalaren botoa argia izan zen: Estatutuaren proiektuaren aurka zegoen. Gauza bera egin zuten Bilar, Guardia, Lantziego eta Moredako udalek

Con anterioridad a someterlo a la consideración de la ciudadanía a través de un referéndum, el texto fue debatido y sometido a votación en la asamblea que los ayuntamientos vascos celebraron en Vitoria-Gasteiz el 6 de agosto de 1933. Pese a proponérselo, los carlistas y republicanos del PRR alaveses no consiguieron que la mayoría de los ayuntamientos se opusieran al Estatuto propuesto por las Comisiones gestoras provinciales. Un total de 41 ayuntamientos alaveses votaron a favor de la propuesta (municipios con el 71,3 % de la población); 26 lo hicieron en contra (23,7 %); 10 se abstuvieron (4,9 %). El sentido del voto del ayuntamiento de Oyón fue claro: se opuso



Ezpata-dantzari txikien taldea (1933ko irailaren 17)

*Oiongo batzokiaren inaugurazio-ekitaldian aritu ziren ezpata-dantzari txikien taldea, ikurrindunarekin batera. Atzeko ilaran ezker-eskuin: Juvencio Ansotegi (1.a); Pedro Maestu (2.a); erdian, ikurriñari eusten, Manuel Fernándezen semea Julio Ansotegi (3.a). Aurreko ilaran, ezker-eskuin: Hilario Ansotegi (1.a); Pedro Luis Fernández (2.a); Antonio Santander (3.a).*

Grupo de los ezpata-dantzaris txikis (17 de septiembre de 1933)

*Grupo de ezpata-dantzaris txikis que participaron en los actos de inauguración del batzoki de Oyón acompañados del abanderado que porta la ikurriña. Fila de atrás, de izquierda a derecha: Juvencio Ansotegi (1º); Pedro Maestu (2º); en medio, sujetando la ikurriña, el hijo de Manuel Fernández; Julio Ansotegi (3º). En la fila delantera, de izquierda a derecha: Hilario Ansotegi (1º); Pedro Luis Fernández (2º); Antonio Santander (3º).*

ere. Aitzitik, Labraza, Navaridas eta Ekorako udalak abstenitu egin ziren. Baiezko botoa eman zuten, bestalde, Mañueta, Gorrebusto, Kripan, Eltziego, Bastida, Lapuebla de Labarca, Leza, Gatzaga Buradon, Samaniego eta Eskuernagako udalek (DE PABLO, Santiago 1985: 211).

Erreferendumaren data zehaztutakoan, berau sustatu zutenek, batzorde kudeatzaileek eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako autonomia estatutuaren proiektua gehiago edo gutxiago babesten zuten talde politikoek propaganda-kanpaina bizia antolatu zuten. Bertan, besteak beste, euskal artista entzutetsuek berariaz horretarako diseinatutako kartelak eta paskinak banatu zituzten. EAJ-PNVk estatutu horren aldeko apustu sendoa egin zuen, nahi zuen estatutua ez zen arren, inondik inora ere. Manuel Irujok argi eta garbi adierazi zuen hilabete batzuk lehenago Oiongo mitinean. Lurralde anaietan bezala, jeltzaleen taldeak eraman zuen Araban kanpainaren pisu handiena.

Estatutuaren proiektuak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarren babes handia jaso zuen. Hala, onartua izateko Konstituzioan ezarritako gutxieneko muga (biztanleriaren bi heren) gainditu zuen. Arabako emaitzak ez ziren izan gainerako lurraldeetan bezain ikusgarriak. Berotasuna urria izan arren, eta, kasu askotan, errepublikazaleen eta sozialisten artean barne kontraesanak egon arren, tradizionalisten jarrera gorabehera, Arabako hautesleen (hau da, 56.056 pertsona) % 46,40k estatutuaren aldeko botoa eman zuen (aldeko 26.015 boto, hau da, emandako botoen % 79,22).

al proyecto de Estatuto. Hicieron lo mismo los ayuntamientos de Elvillar, Laguardia, Lanciego y Moreda. Por el contrario, los ayuntamientos de Labraza, Navaridas y Yécora se abstuvieron. El voto afirmativo vino de los ayuntamientos de Baños de Ebro, Barriobusto, Kripan, Elciego, Labastida, Lapuebla de Labarca, Leza, Salinillas de Buradón, Samaniego y Villabuena (DE PABLO, Santiago 1985: 211).

Una vez determinada la fecha del referéndum, sus promotores, las Comisiones gestoras, así como las formaciones políticas que apoyaban con mayor o menor entusiasmo el proyecto de Estatuto de autonomía para Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, organizaron una intensa campaña de propaganda en la que, entre otros elementos, se distribuyeron numerosos pasquines y carteles diseñados para la ocasión por destacados



Senén Palacios ezpata-dantzaria (1933ko irailaren 17)
El ezpata-dantzari Senén Palacios (17 de septiembre de 1933)

artistas vascos. EAJ-PNV apostó decididamente por dicho Estatuto, aun cuando no era, ni mucho menos, el Estatuto que deseaba. Ya lo había manifestado claramente Manuel Irujo meses antes en el mitin de Oyón. Al igual que en los territorios hermanos, la formación jeltzale llevó en Araba prácticamente el peso de la campaña.

El proyecto estatutario fue ampliamente apoyado por la ciudadanía de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa. Superó el límite mínimo (dos tercios de la población) establecido por la Constitución para ser aprobado. Los resultados de Araba no fueron tan espectaculares como en el resto del País. Pese al escaso entusiasmo y, en numerosos casos, contradicción interna de las fuerzas republicanas y socialistas así como la actitud de los tradicionalistas, el 46,40% del electorado arabarra, que ascendía a 56.056 personas, votó a favor del Estatuto (26.015 votos favorables, esto es, el 79,22% de los votos emitidos).


**Oyón**

Se preparan con gran animación entre todo el vecindario las fiestas patronales de San Vicente Mártir, que empezarán mañana, 22 de enero.

La parte religiosa estará a cargo del clero parroquial y predicará el panegírico del Santo el ilustre canónigo de Logroño don Tomás de Mozoncillo.

El coro de la localidad interpretará la segunda misa pontifical del maestro Perosi.

Los festejos profanos serán amenizados por la Banda de Oyón y los txistularis de Juventud Vasca.

Luego, las comidas en la cocina casera, reuniéndose al amor de la lumbre muchos hijos de Oyón que se hallan fuera del pueblo. Estos días ya han venido varios que trabajan en Logroño y en los pueblos de esta querida ribera de Alaba.

*Euzkadi, 1934ko urtarrilaren 21ekoa, 7. or.*
*Euzkadi, 21 de enero de 1934, página 7.*

| | | |
|---|---|---|
| Hautesleak / Electores | 56.056 | % 100 |
| Abstentzioa / Abstención | 23.216 | % 41,41 |
| Emandako botoak / Votos emitidos | 32.840 | % 58,59 |

| | Emandako botoak<br>Votos emitidos | Hautesleen gaineko %a<br>% sobre electores | Emandako botoen gaineko %a<br>% sobre votos emitidos |
|---|---|---|---|
| Bai / Sí | 26.015 | % 46,40 | % 79,22 |
| Ez / No | 6.695 | % 11,94 | % 20,39 |
| Zuria / En blanco | 130 | % 0,25 | % 0,39 |

*Iturria/Fuente: Santiago de Pablo (1985: 230 y 359).*

EAJ-PNVren kasuan izan ezik, guztien adostasunik eza izan zen gainerako taldeen botoaren ezaugarri nagusietako bat. Esan beharra dago boto tradizionalista aldekoa, kontrakoa eta abstentziokoa izan zela, eskualdearen arabera. Errepublikazale gehienek aldeko botoa eman zuten, udalerri askotan abstenitu egin ziren eta batzuetan kontrako botoa eman zuten. PRRko errepublikazaleek jarrera antzekoa edo bera izan zuten.

Oiongo emaitzari dagokionez, ezezko botoa izan zen nagusi. Tradizionalisten eta PRRko errepublikazaleen jarrera bistakoa da.

Salvo en el caso de EAJ-PNV, la falta de unanimidad es uno de los aspectos que caracterizó el voto del resto de formaciones. Cabe decir que el sentido del voto tradicionalista fluctuó entre el voto afirmativo, el negativo y la abstención según la comarca. Los republicanos votaron mayoritariamente a favor, se abstuvieron en bastantes municipios y votaron en contra en alguno. Los republicanos del PRR mostraron idéntica o parecida actitud.

En cuanto al resultado de Oyón el "no" se impuso ampliamente. Es evidente la actitud de los tradicionalistas y republicanos del PRR.

| | | |
|---|---|---|
| Hautesleak / Electores | 565 | % 100 |
| Abstentzioa / Abstención | 141 | % 24,96 |
| Emandako botoak / Votos emitidos | 424 | % 75,04 |

| | Emandako botoak Votos emitidos | Hautesleen gaineko %a % sobre electores | Emandako botoen gaineko %a % sobre votos emitidos |
|---|---|---|---|
| Bai / Sí | 56 | % 9,91 | % 13,21 |
| Ez / No | 366 | % 64,78 | % 88,32 |
| Zuria / En blanco | 2 | % 0,35 | % 0,47 |

*Iturria/Fuente: Santiago de Pablo (1985: 358).*

Pentsatzekoa da Oiongo baiezko boto gehienak abertzaleek eman zituztela, kopuru hori bat baitator bi aste beranduago, azaroaren 19an, Francisco Javier Landaburu hautagai jeltzaleak ohiko Gorteetarako hauteskundeetan eskuratu zituenekin. Suposizio hori egia bada, 1931ko hauteskundeen aldean jasandako boto igoera, emakumeek botoa emateko eskubidea zutela ere kontuan hartuta, neurtua litzateke.

Hauek dira plebiszituaren emaitzak Arabako Errioxako gainerako udalerrietan:

Cabe suponer que el grueso de los votos afirmativos de Oyón llegó desde las filas nacionalistas, porque dicha cantidad coincide con el número de votos recibidos dos semanas más tarde, el 19 de noviembre, por el candidato nacionalista Francisco Javier Landaburu con ocasión de las elecciones a Cortes ordinarias. De ser cierta la suposición, el incremento porcentual de votos experimentado respecto a las elecciones de 1931, una vez tenido en cuenta el acceso de las mujeres a las urnas, sería moderado.

Estos son los resultados del plebiscito en el resto de las localidades riojano-alavesas:

| Autonomia estatutuaren gaineko plebiszituaren emaitzak (1933ko azaroak 5)<br>Resultados del plebiscito sobre el Estatuto de autonomía (5 de noviembre de 1933) | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Udalerria / Municipio | Errolda / Censo | Abstentzioa / Abstención | Bai / Sí | Ez / No | Zuria / Blanco |
| Bastida / Labastida | 644 | 353 | 58 | 232 | 1 |
| Bilar / Elvillar | 301 | 147 | 8 | 146 | - |
| Ekora / Yécora | 271 | 45 | 35 | 190 | 1 |
| Eltziego / Elciego | 784 | 638 | 135 | 8 | 3 |
| Eskuernaga / Villabuena | 188 | 134 | 54 | - | - |
| Gatzaga Buradon / Salinillas de Buradón | 221 | 101 | 23 | 94 | 3 |
| Gorrebusto / Barriobusto | 164 | Akta deuseza / Acta nula | | | |
| Guardia / Laguardia | 1.342 | 770 | 96 | 476 | 1 |
| Kripan | 141 | 27 | 98 | 16 | - |
| Labraza | 133 | 63 | 3 | 67 | - |
| Lantziego / Lanciego | 454 | 282 | 37 | 134 | 1 |
| Lapuebla de Labarca | 419 | 177 | 91 | 149 | 2 |
| Leza | 201 | 119 | 38 | 42 | 2 |
| Mañueta / Baños de Ebro | 196 | 109 | 47 | 40 | - |
| Moreda | 294 | 117 | 14 | 162 | 1 |
| Navaridas | 151 | 97 | 16 | 38 | - |
| Oion / Oyón | 565 | 141 | 56 | 366 | 2 |
| Samaniego | 165 | 79 | 57 | 29 | - |

*Iturria/Fuente: De Pablo, Santiago (1985:357-359)*

Oiongo baiezko botoak abertzaleen eskutik etorri zirela pentsa daitekeen arren, ezin da gauza bera esan hurrengo udalerrietan, ohiko Gorteetarako hauteskundeetako (1933ko azaroak 19) hurrengo emaitza ikusita. Izan ere, plebiszituko baiezkoa EAJ-PNVk aipatu hauteskundeetan eskuratutako botoaren oso gainetik egon zen. Hona hemen udalerriok: Mañueta, Bastida, Lapuebla de Labarca, Navaridas, Gatzaga Buradon, Samaniego, Eskuernaga eta Ekora. Antzera zeuden, baina alde txikiagoarekin, Kripan, Eltziego, Guardia eta Leza. Beraz, baiezko botoak tradizionalismotik edo errepublikazaletasunetik ere

A diferencia del supuesto carácter nacionalista de los votos afirmativos de Oyón, no puede decirse lo mismo, visto el resultado posterior de las elecciones a Cortes ordinarias (19 noviembre 1933), en las siguientes localidades, donde el "sí" plebiscitario estuvo muy por encima del voto obtenido por EAJ-PNV en las elecciones citadas: Baños de Ebro, Labastida, Lapuebla de Labarca, Navaridas, Salinillas de Buradón, Samaniego, Villabuena y Yécora. En parecidas circunstancias, pero con una diferencia más moderada, se encontraban Kripan, Elciego, Laguardia y Leza. Se puede afirmar, por tanto, que el aporte de

etorri zirela esan liteke. Bestalde, Bilar, Labraza, Lantziego eta Moredan botoak zertxobait igo ziren. Hori dela eta, pentsatzekoa da ideia abertzaleak areagotzen ari zirela bertakoen artean.

Edonola ere, nabarmena da boto abertzalea igo egin zela goian aipatutako udalerri guztietan 1931ko hauteskundeetako botoen aldean. Salbuespen bakarra Eltziego izan zen. EAJ-PNVk, emakumeen botoa eskuratzetik urrun, 1931ko hauteskundeetan lortutako botoetako asko galdu zituen udalerri hartan. Hurrengo hauteskundeetan are boto gehiago galduko zituen.

Berretsitako estatutuaren testua Errepublikako presidenteari entregatu zitzaion (1933ko abenduaren 21ean), hauteskunde orokorrak egin eta bi egun beranduago. Hauteskunde horietan, hain zuzen ere, EAJ-PNVk inoiz ez bezalako arrakasta lortu zuen (12 diputatu, horien artean F.J. Landaburu diputatua); estatu mailan Confederación Española de Derechas Autónomas (CEDA) etal PRR alderdiek gehiengoa irabazi zieten sozialistei eta ezkerreko errepublikazaleei.

Era berean, Arabako tradizionalistek kanpaina gogor bati ekin zioten, besteak beste Araba autonomia estatututik baztertzeko. José Luis Oriol, urte horretako azaroan ohiko Gorteetako hauteskundeetan diputatu hautatua izan zena, Arabako udalen Erkidegoaz baliatu zen gai hori parlamentura eramateko.

Tradizionalistek hasitako kanpainaren harira, Oiongo alkateak eta zinegotziek, Arabako 67 udaletako beste alkate eta zinegotzi batzuek bezala, horien artean Arabako Errioxako herri guztiak, Samaniego izan ezik, idazkia bidali zioten Gorteetako presidenteari, 1933ko abenduaren amaieran. Bertan, berretsitako euskal estatututik Araba baztertzeko eskatzen zen, beste gauza batzuen artean.

Gorteetan, lehenengo batzordean eta, gero, osoko bilkuran, eztabaida handiak egon ziren estatutuaren aldekoen eta kontrakoen artean. Eztabaida horiek, eta hartu beharreko erabakiak, 1934ko api-

votos afirmativos provino también del tradicionalismo y/o republicanismo. Por el contrario, Elvillar, Labraza, Lanciego y Moreda experimentaron un ligero incremento de votos. Ello supone que la penetración de las ideas nacionalistas entre los lugareños estaba en alza.

En cualquier caso, es evidente el avance del voto nacionalista en todas las localidades citadas más arriba respecto a las elecciones de 1931. La única excepción fue Elciego. EAJ-PNV, lejos de beneficiarse del voto femenino, perdió en dicha localidad un buen puñado de los obtenidos en 1931. La pérdida continuó en las elecciones siguientes.

El texto estatutario refrendado fue entregado al presidente de la República (21 de diciembre de 1933) dos días después de celebrarse las elecciones generales. En éstas, EAJ-PNV obtuvo un éxito sin precedentes (12 diputados, entre ellos el alavés F.J. Landaburu); en el ámbito estatal la Confederación Española de Derechas Autónomas (CEDA) y el PRR arrebataron la mayoría a socialistas y republicanos de izquierdas.

Simultáneamente, los tradicionalistas alaveses emprendieron una agresiva campaña tendente, entre otras cuestiones, a excluir a Araba del Estatuto de autonomía. José Luis Oriol, elegido diputado en las elecciones a Cortes ordinarias en noviembre de ese mismo año, se sirvió hábilmente de la Comunidad de Ayuntamientos Alaveses, para llevar el asunto a sede parlamentaria.

Al hilo de la campaña emprendida por los tradicionalistas, el alcalde y concejales de Oyón, enviaron, al igual que otros alcaldes y concejales de 67 ayuntamientos alaveses, entre ellos todas las localidades riojano-alavesas menos Samaniego, un escrito al presidente de las Cortes a finales de diciembre de 1933 en el que, entre otras cuestiones, se solicitaba la exclusión de Araba del Estatuto vasco refrendado.

Las Cortes, primero en comisión y luego en pleno, fueron escenario de amplios debates entre partidarios

rilean atzeratu egin ziren eta ezin izan ziren berriz ere hasi 1936ko otsailera arte, hainbat gertaera zirela eta (EAJ-PNV parlamentutik erretiratu zen Esquerra Republicana de Catalunyako diputatuekiko elkartasuna erakutsiz; euskal alkate eta zinegotziek kargua utzi eta dimititu egin zuten, bai abertzaleek, bai ezkerreko errepublikazaleek, udalen aldeko 1934ko gatazka dela eta; 1934ko urrian iraultza egon zen). 1936ko hauteskunde orokorren ostean, eta Frente Popularrak irabazita, estatutuen gaineko eztabaidari ekin zitzaion berriz, oraingo honetan 1933ko erreferendumeko emaitzak inola ere zalantzan jarri gabe. Eztabaida 1936ko urriaren 1ean amaitu zen, Gorte orokorretan autonomia estatutua onartu zenean, gerra zibil betean, uztailaren 18an hasia bera. Hala, altxamendu militarra egon zen eta tradizionalista arabarrek, besteak beste, biziki babestu zuten.

## Ohiko Gorteetarako hauteskundeak (1933ko azaroak 19)

Hainbat gobernu-krisiren ostean eta konstituzio bermeen auzitegirako kideen hautaketan kontrako emaitza irten ondoren, Manuel Azañak gobernuko presidentearen kargua utzi zuen. Bere ondorengoak, Diego Martínez Barriosek, Gorteak desegin eta hauteskundeak deitu zituen 1933ko azaroaren 19rako. Hala, amaitutzat eman zen Errepublikaren lehenengo bi urtekoa, biurteko sozial azañista izenez ere ezaguna.

Hauteskunde-hitzordu hori, gorago azaldu dugun bezala, denboran bat etorri zen estatutuaren gaineko plebiszituarekin.

EAJ-PNVk inoiz ez bezalako arrakasta lortu zuen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan: jokoan zeuden 17 aulkietatik 12 eskuratu zituen. EAJ-PNVk estatutuaren

y detractores del Estatuto. Dichos debates así como la toma de decisiones preceptivas fueron aplazados en abril de 1934 y no fueron retomados hasta febrero de 1936, debido a diversos hechos acontecidos (retirada de EAJ-PNV del Parlamento en solidaridad con los diputados de Esquerra Republicana de Catalunya; ceses y dimisiones de alcaldes y concejales vascos, tanto nacionalistas como republicanos de izquierda, a raíz del conflicto municipalista de 1934; revolución de octubre de 1934). Tras las elecciones generales de febrero de 1936 y consiguiente victoria del Frente Popular, se retomó el debate estatutario, esta vez sin cuestionar para nada los resultados del referéndum de 1933. El debate culminó el 1 de octubre de 1936 con la aprobación del Estatuto de autonomía en las Cortes generales, ya en plena guerra civil, iniciada el 18 de julio, con una sublevación militar a la que, entre otras formaciones, apoyaron decididamente los tradicionalistas alaveses.

## Elecciones a Cortes ordinarias (19 de noviembre de 1933)

Tras sucesivas crisis de gobierno y un resultado adverso en la elección de vocales para el Tribunal de garantías constitucionales, Manuel Azaña dimitió del cargo de presidente del gobierno. Su sucesor, Diego Martínez Barrios, disolvió las Cortes y convocó elecciones para el 19 de noviembre de 1933, dando por finalizado el primer bienio de la República, también conocido como bienio social-azañista.

La cita electoral coincidió en el tiempo, como ya se ha indicado más arriba, con el plebiscito estatutario.

EAJ-PNV obtuvo un éxito sin precedentes en el ámbito comprendido por Araba, Bizkaia y Gipuzkoa: 12 de los 17 escaños en juego pasaron a sus manos. Se ha venido a decir que EAJ-PNV capitalizó los resul-

plebiszituaren emaitzak kapitalizatu zituela esan izan da. Francisco Javier Landaburu gasteiztarra hautatua izan zen jeltzaleen artean. Arabako bigarren akta José Luis Oriol tradizionalistak eskuratu zuen. Koalizio errepublikazale-sozialista arabarreko kide zaharrek bereizita parte hartu zuten, eta, kasu batzuetan, elkarren aurka ere.

tados del plebiscito estatutario. Entre otros jeltzales, resultó elegido el gasteiztarra Francisco Javier Landaburu. La segunda acta de Araba le correspondió al tradicionalista José Luis Oriol. Los antiguos socios de la coalición republicano-socialista alavesa concurrieron desunidos y, en algunos casos, enfrentados entre sí.

| | | |
|---|---|---|
| Hautesleak / Electores | - | 56.056 |
| Emandako botoak / Votos emitidos | - | 40.180 |

| | | |
|---|---|---|
| Comunión Tradicionalista | José Luis Oriol | 20.718 |
| EAJ-PNV | Francisco Javier Landaburu | 11.525 |
| Partido Comunista | Blas Quintana | 109 |
| Partido Republicano Radical | Narciso Amorós | 2.382 |
| Partido Republicano Radical Socialista | Cesar Castresana | 98 |
| Partido Republicano Radical Socialista Independiente | Félix Susaeta | 4.856 |
| Boto deusezak eta zuriak / Votos nulos y blancos | | 397 |

*Iturria / Fuente: De Pablo, Santiago (1985:108-109; 1989:343).*

Bi urte eskasetan, EAJ-PNVk bikoiztu egin zuen lurralde arabarrean lortutako boto kopurua. Lehen ere esan dugun bezala, emakumeen boto-eskubideak zerikusia izan zuen horretan.

En tan solo dos años, EAJ-PNV duplicó ampliamente el número de votos obtenidos en territorio alavés. A ello contribuyó en parte, como ya se ha dicho, el reconocimiento del derecho a votar a las mujeres.

| | |
|---|---|
| Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeak (1931ko ekainak 23)<br>Elecciones a Cortes constituyentes (23 de junio de 1931) | 4.615 |
| Ohiko Gorteetarako hauteskundeak (1933ko azaroak 19)<br>Elecciones a Cortes ordinarias (19 de noviembre de 1933) | 11.525 |

Estatu mailan zentro-eskuineko bi alderdik, Confederación Española de Derechas Autónomas (CEDA) eta Partido Republicano Radical (PRR) taldeek, sozialistei eta ezkerreko errepublikazaleei gehiengoa kendu zieten. Alderdi horiek gobernuaren erantzukizunak

En el ámbito estatal dos partidos de centro-derecha, Confederación Española de Derechas Autónomas (CEDA) y Partido Republicano Radical (PRR), arrebataron la mayoría a socialistas y republicanos de izquierdas. Dichos partidos asumieron las responsabi-

hartu zituzten bigarren biurtekoan, biurte erradikal cedista izenekoan (1934-1935).

Oioni dagokionez, EAJ-PNVk bikoiztu egin zuen 1931ko Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeetan lortutako boto kopurua. Emakumeek lehenengoz bozkatzeko eskubidea izateak eragina izan zuen, besteak beste. Boto kopuru hori egun batzuk aurretik estatutuaren gaineko plebiszituan lortutako berbera da.

lidades gubernamentales en el periodo denominado bienio radical-cedista (1934-1935).

En lo que respecta a Oyón, EAJ-PNV duplicó el número de votos obtenidos en las elecciones a Cortes constituyentes de 1931. A ello contribuyó, entre otros aspectos, el acceso, por primera vez, de las mujeres a las urnas. Dicho número de votos es igual a los obtenidos días antes con ocasión del plebiscito estatutario.

| Ohiko Gorteetarako hauteskundeak (1933ko azaroak 19)<br>Elecciones a Cortes ordinarias (19 noviembre 1933) | |
|---|---|
| Emandako botoak<br>Votos emitidos | EAJ-PNVk jasotako botoak<br>Votos EAJ-PNV |
| 455 | 56 |

*Iturria / Fuente: Santiago de Pablo (1989:343).*

Herriko hautesleak Comunión Tradicionalista (242 boto) taldearen alde agertu ziren batez ere, eta, bigarrenik, Partido Republicano Radical (151 boto) taldearen alde. Ezkerreko errepublikazaleen botoak oso gutxi izan ziren (3 boto).

Eskualdeko emaitzak oso desberdinak izan ziren. Hasteko, 2 udalerriren mugikortasun eza azpimarratu behar da: Gorrebusto eta Gatzaga Buradoni buruz ari gara. Bigarrenik, udalerri batzuetan lehenengoz eman zitzaion botoa hautagai abertzale bati, era apalean izan zen arren: Mañueta, Bastida, Labraza, Moreda, Navaridas, eta Samaniego. Hirugarrenik, aurrekoaren kontrako joera dugu: Lapuebla de Labarca eta Ekoran guztiz edo zati batean kendu zuten 1931n jarritako konfiantza; Eltziegon, emakumeen botoaren zati bat ez eskuratzeaz gain, 50 boto galdu ziren. Laugarrenik, hau izanik azpimarratu beharreko azken alderdia, udalerri batzuetan igo egin zen EAJ-PNVren aldeko boto kopurua (Kripan, Guardia, Leza, Oion eta Eskuernaga), kasu batzuetan, erreferendumaren baiezko botoen gainetik ere (Bilar eta Lantziego).

El electorado local se decantó abiertamente por la Comunión Tradicionalista (242 votos) y en segundo lugar por el Partido Republicano Radical (151 votos). El voto republicano de izquierdas quedó reducido a la mínima expresión (3 votos).

El comportamiento de la comarca fue muy desigual. En primer lugar cabe destacar la inmovilidad de 2 localidades: Barriobusto y Salinillas de Buradón. En segundo lugar, aun cuando lo hicieron tímidamente, en determinadas localidades se votó por primera vez a un candidato nacionalista: Baños de Ebro, Labastida, Labraza, Moreda, Navaridas, y Samaniego. En tercer lugar, la tendencia contraria a la anterior: Lapuebla de Labarca y Yécora retiraron, parte o toda la exigua confianza depositada en 1931; Elciego, además de no hacerse con parte del voto femenino, perdió 50 votos. En cuarto y último lugar tenemos aquellas localidades en las que se incrementó el número de votos a EAJ-PNV (Kripan, Laguardia, Leza, Oyón y Villabuena), incluso, en algunos casos, por encima del voto afirmativo del referéndum (Elvillar y Lanciego).

| Udalerria / Municipio | Gorte Konstituziogileetarako Hauteskundeak (1931ko ekainak 28)<br>Elecciones a Cortes constituyentes (28 junio 1931) | | Autonomia Estatutuaren erreferenduma (1933ko azaroak 5)<br>Referéndum Estatuto de Autonomía (5 noviembre 1933) | Ohiko Gorteetarako hauteskundeak (1933ko azaroak 19)<br>Elecciones a Cortes ordinarias (19 noviembre 1933) | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Boto kopurua / Número de votos | | | | |
| | Emandakoak Emitidos | EAJ-PNV | Baiezkoak Afirmativos | Emandakoak Emitidos | EAJ-PNV |
| Bastida / Labastida | 256 | 0 | 58 | 372 | 8 |
| Bilar / Elvillar | 165 | 7 | 8 | 247 | 9 |
| Ekora / Yécora | 122 | 4 | 35 | 250 | 2 |
| Eltziego / Elciego | 336 | 159 | 135 | 464 | 109 |
| Eskuernaga / Villabuena | 96 | 2 | 54 | 167 | 14 |
| Gatzaga Buradon / Salinillas de Buradón | 95 | 0 | 23 | 185 | 0 |
| Gorrebusto / Barriobusto | 84 | 0 | - | 144 | 0 |
| Guardia / Laguardia | 528 | 16 | 96 | 950 | 73 |
| Kripan | 61 | 3 | 98 | 126 | 88 |
| Labraza | 59 | 0 | 3 | 103 | 6 |
| Lantziego / Lanciego | 206 | 1 | 37 | 356 | 43 |
| Lapuebla de Labarca | 196 | 2 | 91 | 351 | 0 |
| Leza | 92 | 6 | 38 | 150 | 32 |
| Mañueta / Baños de Ebro | 82 | 0 | 47 | 169 | 7 |
| Moreda | 129 | 0 | 14 | 247 | 17 |
| Navaridas | 74 | 0 | 16 | 121 | 2 |
| Oion / Oyón | 239 | 22 | 56 | 455 | 56 |
| Samaniego | 82 | 0 | 57 | 136 | 1 |

*Iturria / Fuente: De Pablo, Santiago (1985:108-109; 1989:342-343).*



OYON'GO 13-3-34

EUZKO-GASTEDIJA

**Senén Palaciosek Antonio Gamarrari zuzenduriko idazkia (1934-03-13)**

*1934ko Aberri Eguna dela eta, Senén Palaciosek hainbat eskabide egin zizkion burukideari. Sabino Arana Fundazioan gordea.*

**Comunicación de Senén Palacios dirigida a Antonio Gamarra (13-03-1934)**

*Carta dirigida por Senén Palacios al burukide Gamarra realizando algunas peticiones relacionadas al Aberri Eguna de 1934. Depositada en la Fundación Sabino Arana.*

## *1934ko Aberri Eguna*

Jakina denez, Aberri Eguna EAJ-PNVk 1932an ezarritako jai eta aldarrikapenerako eguna da eta euskal abertzaletasunaren urrezko ezteiak ospatzen ditu. Bilbotik (1932) eta Donostiatik (1933) pasa ondoren, Gasteizen ospatu zen Aberri Egunaren hirugarren edizioa, 1934ko apirilaren 1ean. Egunak esangura berezia izan zuen, lurralde arabarretan euskal abertzaletasunaren indarra erakutsi nahi baitzen. EAJ-PNVk ez zuen ezkutatu Arabako herria normaltasunez eta alaikiro garatzea saihesten zuten kazikismo

## *Aberri Eguna de 1934*

Como ya es sabido, el Aberri Eguna (=Día de la Patria Vasca) es una jornada festiva y reivindicativa instaurada por EAJ-PNV en 1932, con ocasión de las bodas de oro del nacionalismo vasco. Tras su paso por Bilbao (1932) y Donostia (1933), Gasteiz acogió el día 1 de abril de 1934 la tercera edición del Aberri Eguna. La jornada tuvo un especial significado, ya que se trataba de mostrar en tierras alavesas la fuerza del nacionalismo vasco. EAJ-PNV no ocultó su ansia incontenible por desmontar de una vez para siempre

zahar, iraingarri eta zitalaren oinarriak behin betiko desmuntatzeko berebiziko gogoa zuela. Era berean, azpimarratu nahi izan zuen Araba abertzaletasunaren barruan sartzen zela, Euzkadiko parte izanik, eta, ondorioz, euskal batasuna ezin zela zalantzan jarri. Kontuan hartu behar da data horietan Oriol tradizionalista eta Arabako Udalen Erkidegoa temati zeudela lurralde arabarra 1933ko azaroan kontsultatutako autonomia-estatututik baztertzeko kontuan.

Kideak nortzuk izan ziren ez dakigun arren, badakigu Oyon´go Euzko Gastedijako ezpata-dantzari eta gorulari nagusiek parte hartu zutela Aberri Eguna dela-eta Mendizorrotzako futbol zelaian egin zen jaialdian. Joan-etorriek eragindako gastuei aurre egiteko dirurik ez zutela eta, Oiongo jeltzaleek 280 pezeta hartu zuten antolatzaileen eskutik. Aurretiaz,1934ko urtarrilean, batzokiko txistulariek jo zuten San Bizente Martiriaren jai herrikoetan, Oiongo bandarekin batera.

el andamiaje de un caciquismo trasnochado, indigno y envilecedor que impedía el desarrollo normal y floreciente del pueblo alavés. Asimismo quiso poner de manifiesto que Araba era en la concepción nacionalista una parte de Euzkadi y que, en consecuencia, la unidad vasca era un hecho incuestionable. Ha de tenerse en cuenta que por esas fechas, el tradicionalista Oriol así como la Comunidad de Ayuntamientos Alaveses estaban empeñados en excluir al territorio alavés del Estatuto de autonomía plebiscitado en noviembre de 1933.

Aun cuando no conocemos la identidad de sus componentes, sabemos que un grupo de ezpata-dantzaris y otro de hilanderas pertenecientes a Juventud Vasca de Oyón acudieron al festival que, con ocasión del Aberri Eguna se celebró en el campo de fútbol de Mendizorrotza. Dadas las dificultades económicas de la entidad local para sufragar los gastos de transporte de los dantzaris a Gasteiz, la organización del acto corrió con dichos gastos (280 pesetas). Con anterioridad (enero de 1934), los txistularis del batzoki amenizaron, junto con la banda de Oyón, las fiestas patronales de San Vicente Mártir.

## *Susperraldia (1935)*

1934ko urrian egondako gertaeren ondorioz jarduerak eten behar izan ondoren, EAJ-PNVren Oiongo Uri Erekundea Alderdiak Gasteizen 1935eko otsailaren 24an deitutako Ohiko Herrialde Batzarrera bertaratu zen. Eusebio Palacios izan zen ordezkaria. Batzar horretarako Arabako Errioxako Uri Erakunde ugari gerturatu ziren: Kripan (Miguel Villate), Guardia (Emilio Jiménez), Lantziego (Pablo Urarte), Moreda (Pablo José Marauri). Esan beharra dago beste pertsona batzuen artean Pablo Urarte aukeratu zutela batzar horretan EAJ-PNVren Aberri Batzarreko ordezkari arabarra izateko eta, haren ordezko gisa, Ramón Calleja (Kripan), Pablo José Marauri eta Victoriano Palacios (Oion).

## *Reactivación (1935)*

Tras el parón forzado de actividades como consecuencia de los sucesos acaecidos en octubre de 1934, la Organización Municipal de EAJ-PNV en Oyón acudió a la Asamblea Territorial Ordinaria celebrada por el Partido en Vitoria-Gasteiz el 24 de febrero de 1935. Estuvo representada por Eusebio Palacios. A dicha asamblea asistieron numerosas Organizaciones Municipales riojano-alavesas: Kripan (Miguel Villate), Laguardia (Emilio Jiménez), Lanciego (Pablo Urarte), Moreda (Pablo José Marauri). Cabe decir que, entre otras personas, Pablo Urarte fue elegido en dicha asamblea como representante alavés a la asamblea nacional de EAJ-PNV y como suplentes Ramón Calleja (Kripan), Pablo José Marauri y Victoriano Palacios (Oyón).



Al ayuntamiento de la villa de Oyon
Num 12

Euzko Gaztedia (Juventud vasca) de esta localidad pone en conocimiento de ese ayuntamiento, que habiendo celebrado esta sociedad sus juntas generales ordinarias para entre otros asuntos tratar de la elección de sus directivos resultó: que en la ultima que fue celebrada el veinte de diciembre de mil novecientos treinta y cuatro fueron elegidos para directivos de esta sociedad los señores siguientes

Presidente D. Senen Palacios
Secretario D. Eusebio Palacios
Tesorero D. Basilio Fernandez
Vocales D. Fortunato Fernandez
y D. Arturo Palacios

Al mismo tiempo hacemos presente que esta sociedad cambió su residencia de donde antes la tenia en la plaza de la republica numero tres, a la plaza de el carmen numero diecinueve

Presentando el presente documento para conocimiento de ese ayuntamiento

En Oyon a cuatro de mayo de mil novecientos treinta y cuatro

El Presidente
Senen Palacios

**Senén Palaciosek alkateari zuzenduriko jakinarazpena (1935-05-04)**

*Zuzendaritza-batzarordearen zein egoitza-aldaketaren berri emanaz Senen Palaciosek alkateari egindako idazkia, 1935ko maiatzaren 4koa. Gutun horrek erratuta darama urtea: "1935" esan beharrean, Senének "1934" jarri zuen. Signatura: 1798-8 kutxa, Agiritegia, Oiongo Udala.*

**Comunicación de Senén Palacios dirigida al alcalde (04-05-1935)**

*Comunicación, de fecha 4 de mayo de 1935, dirigida por Senén Palacios al alcalde dando cuenta del cambio de la junta directiva así como de domicilio social. Dicha comunicación está mal datada. En lugar de "1934" debiera decir "1935". Signatura: caja 1798-8, Archivo, Ayuntamiento de Oyón.*

Goian aipaturiko Herrialde Batzarra egin baino egun batzuk lehenago (otsailaren 17a), mutiko bat bataiatu zuten herriko parrokian, Abdón Senén Palacios alderdikidea eta Lucía Bernedo Sarabia senar-emazteen mutiko jaioberria hain zuzen. Bikote horrek, Sortzez Garbia kaleko 17. zenbakian bizi zenak, gainontzeko euskal herrialdeetan bizi ziren abertzale askok egiten zuen moduan, Sabino Aranak atondutako izendegitik hartutako euskal izena jarri nahi izan zion jaioberriari: Josu Unai Ona. Itxura batean inongo zailtasunik eta eragozpenik gabe, Esteban Zubillaga apaizak aipaturiko izenarekin bataiatu zuen haurra eta izen hori jaso zuen bataio-liburuan. Euskal izenaren ondoan beste hau ere jarri zuen: Jesús el Buen Pastor. Errolda Zibilean egin beharreko izenematea

Días antes (17 de febrero) de la celebración de la Asamblea citada más arriba, fue bautizado un niño en la iglesia parroquial. Se trata del hijo del matrimonio formado por el alderdikide Abdón Senén Palacios y Lucía Bernedo Sarabia. Esta pareja, con domicilio en la calle Concepción 17, al modo y manera de cuanto venían haciendo muchos jeltzales en los territorios hermanos, acordaron imponer un nombre tomado directamente del nomenclátor sabiniano: Josu Unai Ona. Aparentemente sin dificultad ni impedimento alguno, el sacerdote Esteban Zubillaga impuso dicho nombre y así lo hizo constar en el libro de bautismos junto con una referencia en castellano (Jesús el Buen Pastor). La inscripción en el Registro Civil tampoco presentó problema alguno. No hemos dado con otros nombres sabinianos en el periodo analizado. Ello nos hace pensar que es el primer nombre que se impuso en Oyón.

Semanas más tarde, en el marco de una intensa campaña de propaganda nacionalista que llevaron a cabo el Araba Buru Batzar (ABB) y una comisión constituida ad hoc en el seno del Bizkai Buru Batzar (BBB), Oyón acogió un mitin (10 de marzo de 1935). También lo hicieron Salinillas de Buradón y Labastida el 21 de abril. Respecto a esta última localidad cabe decir que el acto, en el que intervinieron Pedro Basaldua, José Luis Irisarri y Francisco Javier Landaburu, fue presentado por el joven lugareño y concejal

ere arazorik gabe egin zuten gurasoek. Bilatu arren, ez dugu izen sabindiar gehiago aurkitu aztertutako denbora-garaian. Ondorioz, zera pentsatzen dugu: Unai dela Oionen jarri zen lehen euskal izen sabindiarra.

Aste batzuk beranduago, Araba Buru Batzarrak (ABB) eta Bizkai Buru Batzarren barruan (BBB) ad hoc eratutako batzorde batek Arabako udalerri askotan gauzatu zuten propaganda abertzalearen kanpaina sendoaren barruan, Oionen mitin bat antolatu zen (1935eko martxoaren 10ean). Gatzaga Buradonen eta Bastidan ere antolatu ziren apirilaren 21ean. Azken udalerri horretan, hain zuzen ere, ekitaldiaren aurkezlea Francisco Martínez de Ayala bertako zinegotzi eta herritar gaztea izan zen eta bertan parte hartu zuten Pedro Basaldua, José Luis Irisarri eta Francisco Javier Landaburuk. Jasotako iritziak kontuan hartuta, jeltzaleak berriz ere gerturatu ziren Bastidara beranduago, ekainaren 29an (Mateo San Cristóbal; Francisco Solano eta José Luis Irisarri). Propagandagileak, era berean, Bilarrera joan ziren ekainaren 2an (Mª del Carmen Sánchez Pérez de Gamarra; Ramón Calleja, Kripandik; eta Francisco Javier Landaburu); eta Eltziegora uztailaren 7an (Pedro Basaldua; José Luis Irisarri).

Bere araudian ezarritako aginduen arabera, Oyon'go Euzko Gastedijak zuzendaritza-batzordearen zati bat berritu zuen 1934ko abenduaren 20an egindako ohiko bileran. Batzar hori, Abdón Senén Palaciosek 1935eko maiatzaren 4an udalera igorritako jakinarazpenaren arabera, honakoek osatu zuten:

Francisco Martínez de Ayala. A la vista de las impresiones recibidas, los jeltzales volvieron a acercarse a Labastida fechas más tarde, el 29 de junio (Mateo San Cristóbal; Francisco Solano y José Luis Irisarri). Los propagandistas visitaron asimismo Elvillar el 2 de junio (Mª del Carmen Sánchez Pérez de Gamarra; Ramón Calleja, de Kripan; y Francisco Javier Landaburu); y Elciego el 7 de julio (Pedro Basaldua; José Luis Irisarri).

En cumplimiento de los preceptos establecidos en su reglamento, Juventud Vasca de Oyón renovó parcialmente su junta directiva en la asamblea ordinaria celebrada el 20 de diciembre de 1934. Dicha junta, según comunicación dirigida, el 4 de mayo de 1935, por Abdón Senén Palacios, al ayuntamiento quedó compuesta por las siguientes personas:



**Oiongo bigarren batzokia (1935)**

*Aurreko batzokia utzi ondoren, 1935eko hasiera aldean, Oiongo Euzko Gastedijaren egoitza etxe honetara pasatu zen (Karmengo Amaren plaza 19). Berriki egindako argazkia.*

**Segundo batzoki de Oyón (1935)**

*Tras abandonar el anterior, a primeros de 1935 la sede de Juventud Vasca de Oyón pasó a este inmueble sito en el nº 19 de la Plaza del Carmen. Imagen tomada reciente.*

Presidentea: Abdón Senén Palacios García
Idazkaria: Eusebio Palacios García
Diruzaina: Basilio Fernández Agirre
Kidea: Fortunato Fernández Agirre
Kidea: Arturo Palacios García

Era berean, Abdón Senének udalari jakinarazi zionez, Euzko Gastedijak Errepublika Plazako 13-2 zenbakiko egoitza utzi zuen, Karmen Plazako 19. zenbakian zegoen etxebizitzako 1. solairuko bulegoetara pasatzeko. Eraikin horretan bertan bizi ziren, era berean, Basilio Fernández Agirre eta bere emazte Lucrecia Palacios. Ez dakigu zergatik lekualdatu ziren hara eta batzoki berri horretan zein jarduera gauzatu ziren ohiko Gorteetarako hauteskundeen deialdia egin arte (1936ko otsaila).

## Ohiko Gorteetarako hauteskundeak (1936ko otsailak 16 eta martxoak 1)

Erradikalek eta cedistek osatutako gobernuaren sendotasun falta ikusita, eta kontuan hartuta politikari ugari finantza-eskandaluetan zeudela, Niceto Alcalá Zamorak, Errepublikako presidenteak, Gorteak desegin zituen 1936ko urtarrilaren 7an eta hauteskunde orokorrak deitu otsailaren 16rako.

